

## **EUSKARA ETA EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE DEMOKRATIKOAK ERRESPETATU!**

### **EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ESKOLA PUBLIKOAN ZATITZEN EZ GAITUEN ETA EUSKARAREN EZAGUERA BERMATZEN DUEN EREDU BAKAR BATEAN!**

PSEko Gobernuak aurkeztutako dekretuekin guztiz desados gaude, euskararen murrizketa bat direlako. PSEri eskuma espainolarekin (PPrekin) hautsi eta eskuma euskaldunarekin (EAJ-EA) akordioetara heldu gabe ezkeraren aldarrikapen tradizionala defenda dezala exijitzen diogu: eskubide demokratikoak Euskal Herriarentzat.

#### **Dekretu berriak**

Isabel Celaá Jauraritzako Hezkuntza Sailburuak 2009ko azaroan aurkeztutako dekretu proiektuetan aldaketa nagusia hezkuntzan euskara lehen hizkuntzatat ez hartzea da. "Aukeratzeko eskubidea" bermatzea eta "hizkuntzen arteko berdintasuna" lortzea diote dela haien helburua.

Teorian ondo egongo litzatekeena errealitatera eramatean guztiz kontrakoak bihurtzen da. Gaztelania eta euskararen egoera ez da batere berdina. Izan ere, euskara urtetan baztertuta egon ondoren eta oraindik gaur egun Euskadiko %41k ez dakienean, berdintasuna aldarrikatzea guztiz kontrakoa esan nahi du: gaztelera pribilegiatzea da eta euskara baztertzea. Hau da, hain zuzen ere, UPN-k Nafarroan betidanik egin duen politika, orain indartu nahi duena. Ingelesa irakastearren aitzakiaz baliatuz,

euskararen irakaskuntza are gehiago murriztu nahi dute.

#### **Eskubide demokratikoen zapalketa**

Euskararen kontrako neurriak beste eskubide demokratikoen murrizketarekin batera datoz.

Aipatutako dekretuek Euskal Herria izendapen politiko bezala testuliburuetatik desagerraraztea planteatzen dute. Bestaldetik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Ertzaintzak sinatu nahi dute hitzarmen bat "segurtasuna" bermatzeko aitzakiarekin ikasle mugimendua erreprimitzeko. Are larriagoak dira azken hilabeteetan ikusitakoa adierazpen, manifestazio eta elkarketa eskubideen zapalkuntzan. Honen adibide garbia ezker abertzaleko kideak izateagatik 15 gazteren atxiloketa izan zen.

Eskumarentzat ezinbestekoa izan da beti eskubide demokratikoak erasotzea, haien neurriei aurre egiteko modu bezala. Ez bakarrik PPrena, euskal eskumarena ere. EAJ-k eta EAK, euskal kapitalisten ordezkariak, gobernuan zeudenean gogor aritu ziren haiek sortutako Ertzaintzarekin eskubideak ukatzen.

Euskararen kasua berdina da. Orain krokodiloen malkoak botatzen daude, baina 30 urtez egon ziren agintean eta



### **EUSKARAREN ETA EUSKAL GAZTERIAREN KONTRAKO ERASO GEHIAGORIK EZ!**

**IKASLE SINDIKATUAREKIN BATU ETA  
KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA  
SISTEMA PUBLIKO BATEN ALDE  
BORROKATU!**

ez zuten euskararen egoera konpondu. Are gehiago, hiru ereduak (A, B eta D) ezarriz ikasleak zatitu gintuzten, eta D eredukoentzat izan ezik, euskararen benetako ikasketa ezinezkoa egin zuten.

## Gure aldarrikapenak

PSEren gobernuak, PPrekin daukan akordioa hautsi beharko luke, eta Euskal Herriko eskubide demokratikoak defendatu, haien artean euskara. Galizian PPK galegoaren aurkako dekretu bat aurkeztu zuen hezkuntza komunitatearen erantzun masiboa eragiten.

Urtarrilaren 21ean irakasleen sindikatuek eta "Sindicato de Estudiantes"-ek greba orokorrera deitu zuten eta PSOEek Galizian horren alde agertu zen.

Katalunian, non PSOEek koalizioan agintzen duen, eredu bakarra dago, ikasgai guztiak katalanez izanik eta horrela hezkuntza honen ikasketa bermatuz. Honek ikasleak eta langile klasea hizkuntzagatik zatitzea eragozten du. Izan ere, eskumak langile klasea eta gazteak zatitzeko eta horrela ahultzeko elementuak bilatzen ditu beti, etorkinen kriminalizazioan ikus daitekeen bezala.

Euskararen defentsa hezkuntza publikoaren defentsarekin lotuta joan behar da, ez euskara ezta irakaskuntza orokorrean ez bailukete pribilegioa izan

behar (eta aldi berean negozio bat beste batzuentzat). Era berean, euskaltegiak edo helduei irakasteko kurtsoak dohain izan behar dira. Hala ere, honekin ez da aski: kalean, lantokian, lagunekin, denbora librean... gaztelaina da nagusi. Beharrezkoa da bizitzako esparru guztietara euskara hedatzea, langileek lanorduen barruan (soldata murrizketarik gabe) ikasteko aukera izatea; aldizkari, film eta abar euskaraz eskaintzea...

Baina bizi garen sisteman, kapitalismoan, hau ezinezkoa da, etekin handiena bilatzean oinarrituta baitago, eta kapitalistek dirua lortzeko inbertitzen dute ez giza beharrik asetzeko edo kultura sustatzeko.

Horregatik euskaren aldeko borroka hezkuntza publikoaren aldekoarekin eta kapitalismoaren kontrakoarekin batu behar direla uste dugu.

Estatu espainoleko PSOEko gobernuak PPren aurrean amore eman du "hezkuntza akordioarekin". Hitzarmen honek, eskubide demokratikoak murriztu eta hezkuntza pribatizatzea helburu duena, Celaáren dekretuen sustrai bera dauka: eskumari kontzesioak egitea. Horregatik aldarrikapen hauek indar handiagoa izateko batu behar direla uste dugu, bai Euskal Herrian bai Estatu espainol osoan hezkuntza publikoa eta eskubide demokratikoen alde denok batera borrokatuz.

## Krisi kapitalista

Mundu kapitalista 70 urtetan bizi izan duen krisirik sakonenean murgildurik dago. Eta ez da izan bankari "maltzur" batzuegatik, sistema kapitalistaren funtzionamendurengatik baizik. Aberastasuna gutxi batzuen eskutan pilatzen da, munduko biztanleriaren gehiengoak pobre bizitzera behartuz. Krisia langileok eta gazteok ordain ez dezagun, ezkerreko aukera baten alde borrokatu behar dugu:

**Krisia haren arduradunek, kapitalistek, ordain dezatela!**

**Lan erreforma eta pentsioen erreformari ez!**

**Gutxienez 1100 euroko soldata, langabezian daudenentzat ere bai!**

**Banketxe eta enpresa handien nazionalizazioa, langileen kontrolpean!**

**Euskal Herria eta gainontzeko nazionalitate zapalduentzako autodeterminazio eskubidea! Iberiar Nazionalitateen Federazio Sozialista baten alde!**

[www.sindicatodeestudiantes.net](http://www.sindicatodeestudiantes.net) · [ikaslesindikatu.blogspot.com](http://ikaslesindikatu.blogspot.com)

• **Bizkaia:** 944 790 381bizkaia@sindicatodeestudiantes.net • **Araba:** 945 231 202 araba@sindicatodeestudiantes.net • **Nafarroa:** nafarroa@sindicatodeestudiantes.net